

KRISTAU - EZIERA

Erri kristau bati, «Eziera kristaua» dagokio. «Eziera kristaua» esan, «Kristau eziera» esan, berdin zaigu. Orain, kakotz barruan jarrir ditugun bi itz oien mamia aztertu behar degu.

Aurrenengo, gogora hartzen dugun, gure ikasketetan illabete ontan sartuko diran ikaste-taldea oiek. Nexka ta mutil, or dijazok ikastaro berriari asiera emateko ustean. Oiek dira, datorren giza-dokio gizamakume elduak; eta guzuzin ametza, «Eziera» egokia iristea da.

«Eziera» itz ori, ezaguna da guziztat; baiña errezegei auztuzten zaigu, «Eziera» ezala «Ikastea» bakarrik. Guraso ta etxetako ikeltzadik auzuntzen baditugu, auxe ikusiko degu garbi: familitatan duten kezka bakarra, beren seme-alaba gazteak, ikastarora aurrera ateratzeko gauza egin ditezela, da. Ez dezatela, alegia, urtea galdu.

Baiña ikastetxe batek ez du erakutsi bakarrik egin bear; ez goaz aietara, irakasleak dakitena, ikasleen burutara aldatu dezatan bakarrik. Ori erdi bidean gelditzea izango litzateke. Etxe oietan, orrez gainera, ikasle oiek geroko gizon eldu ta emakume eldu egin bear dira. Ta ori, bizitzak dituan arpegi guzietan. Irakaslearen lana, au baita oien nortasuna prestatu, indartu ta erantzupiduz jatea.

Alabaiña, ikastetxean lana erakusten bakarrik agortu nai dutenen uestea okerra ta erdizakoa bada, beste ertzera jotzea ere, oker jokatzea litzake. Ba dira, izan ere, «Eziera Kristaua» alizaki artuta, ikastetxe-barruan biziro elizkizun eta otoitz-aldiak antolatzen saiatzen diranak. Ta au ere ezta bide egokia; «Erlijio-eziera» espaita errezotan urtea.

Ikastetxe batek, Eliz-Batzarrak erakutsi digun bezela, oso «Eziera kristaua» eskeñi dezake, errezo ta otoitz askorik gabe. Ikasle oiek ba dute beren sendiatoko giro kristaua; ba dute bizi diran gizarokoteko alde kristaua. Ikastetxetik erakutsi bear duana, erlijio-saillako eziera ta erakutsia. Kontu baiña! Ikasle bakoitzak bere erlijio-konturamenerari eman bear diogan erantzuna, ez da ikastetxean bateratu bear. Jokabide onek, espaitu oitura itxu bat besterik sortzen. Ikastetxera, naiz da kristauena izan, ezta otoi egitera joaten. Noizean bein, ori ere egin bearko da, bai. Baiña «Eziera kristaua» ezta otoitz eta elizkizun bidez sakonki osatzen. Sustraira jotzeko, kristau-oiriarri sendiak erakutsi bearko dira; ta irakasleak kristau-aitor garbia eskeñi bearko dute, beren bizitan. Irakasleak, alegia, ben-benetako kristau izan bearko dute.

Iparraldea gain - behera

Benean da gogoan hartzekoa Eskualdun Gazteriak aurtengo Miaztean burutu duen inkesta mamituena. Baiña, zoritzarrez, ez gure artean batera ezagutua. Askoz hobeki ezagutzen dituzte batzuk Asiako eta Ameriketako goraberak, etxe-koak berak baino. Nor ardatzen da gure artean "bestalde" ko egoera lagarriaz? Ez ote da hau, ordea, gure arazoa "konkreto"tan utzertzeko aukera bikain bat?

Hitz gutxiara bilduko dituz txosten-terren ondorioak; nahiz 48 horrialdeetako liburuska hori osorik irakurtzea guztiz interesantea izan.

Euskal Herriko Iparraldea guztiz dago "subdesarroltu" deritzan mailan. Eskualdun Gazteraren lana irakurri ondoren, hauxe agertzen da garbiki. Eta zalanetan jartzetik ez dago.

Nekazaritzaren aldakuntzak diralata, baserriak hustu egiten ari dira Añuamendiaz bestaldera. Baina gazteriak uzten ditu, ez zaharrek. Hau dala-ta, baserriaren problema larriago egiten da. Alde batetik, beharrezkoak diran teknika-aldaketak ez dira egiten (%-eko 37-k dituzte 65 urte eta beharriagoko). Ezagunari argitsu bat: gaserrian gelditzen diranetatik %-eko 62-k ez dute sinisten beren teknika-maila txarra danik (ba omen dakite gazteak nola egin...). Aldakuntza-girok ez dago, beraz, eta gazteek. Europa zertan dan dakitelarik batez ere, alde egin behar izaten dute goaiturik.

Bestetik, baserriaren egoera berez jartzen da okerrago, nahiz etxe-ko-jaunak zergatik dan ez ongi jakin, teknika-aldakuntzak guztiz beharrezkoak diralako. Zoritzarrez, nekazarien %-eko 4's soilik dira gazteak, eta baserriko ingeniuzunetan erantzule edo erresponsablek. Hitz batez, nekazarien artean %-eko 95's-k ez dute baserriaren abia-da beren eskuetan ezertan ere. Zaharrek jaun eta jabe, eta gazteak morroin.

Hau dala bide, gazteak multzoka doaz. Neskak Paris aldera joan ohi dira gehienik, neska-maia egite-ra; eta mutilak Ameriketara askotan, artzan gisa. Baserriari jolotako eskualdun gazte horiek nai molatu ohi diran samozta ez da zaila: hizkuntzaren koskarri, orain arte haunditua, ohi-dura-desberdintzasunaren eta bakardadearen eragozpena erasten zaizkio. Gauza ezaguna da. gonbarazio baterako, eskualdunak maiz mozortzen dirala Paris'en eta kanpoko hiri haundietan; eta neskak, bizimodu errazago baten nahian, aitortu nahi dan bai-

no usuago lerritzen dirala beste bizimodutara.

Inkestak ongi erakusten duenez, 20 usteetatik 25 urteetarako adin-tarteak da aldegiaterraren garaia baserriaren gelditzen diran gazteen artean. %-eko 67-k dituzte 20 urte edo gutxiago; baiña %-eko 33-k bakarrik 20 urtetatik gorra. Iparraldea gazteak ari da hustutzen, eta zaharrez "beletzen". Herria, hortaz, gero eta atzerakoiago eta nagiago agertzen da; gero eta desegokiago ere bai beharrezko diran teknika eta pensakera aldatzeki aurre egiteko. Joan dan urtean, hortara, Iparraldeko gazteetatik ("gazte" = 15-25 urte) %-eko 9'3-k egin dute iges sorlekutik!!

Joan diran neska, bestalde, gehiago dira joan diran mutilak baino (hau Hegoaldean ere gertatzen bide da); eta baserri askotan mutil-tzar bat dago bakarrik, familiarik eta segidarik gabe, emakume-faltaz ezin ezkondurik. Neskek ganera ez dute baserria ezkondu nahi: nola edo hula kalera nahi dute; eta ia danak kalera jeisten dira. Inkestak dionez bi mutilentzako ez da gaur gelditzen neska bakar bat baizik.

Iparraldeko baserria, beraz, pikur-tala da; eta areago joango da urren-urteetan. Euskeraren gogai-lua gaur-gaurkoz baserria izanik, Iparraldeko euskera hiltzeko abian jarri da; eta nabarmen da bere galera Zuberoan batez ere. Iparralde, beraz, laister bihurtuko da Erdal Herri huts bat gaurko bide hortatik.

Iparraldeko industria guztiz ere doa gainbehera. Baiona'ko "Forges du Boucau" daaloka aipatu zan orain dala bospasei urte, eta arrabotz pittin bat egin zuen; baina gerorik gauza larriagoak gertatu dirau, eta aipatu ere ez dira egin. Nun-bait jendea ohitu egin da bere ezinttasunean...

Hazparne'ko industria (zapataltegiak) urte hauetanxe ari da hiltzeki. 1966-ean 1050 langile zuen Hazparne'n; gaur 530 besterik ez... Erdira hiru urtetatik! Gauza beretsua Maule'ko industrian, Zuberoan: Aguer lantegiak, esate baterako, 12 milioi oski-pare saltzen zituen gerra aurretan; 4 milioi besterik ez 1969-ean.

Lan-sariak oso apalak dira, legetik beheragokoak askotan (Hazparne'n, esate baterako). Baina jendeak ez... Erdira hiru urtetatik! Gauza beretsua Maule'ko industrian, Zuberoan: Aguer lantegiak, esate baterako, 12 milioi oski-pare saltzen zituen gerra aurretan; 4 milioi besterik ez 1969-ean.

KARTA AGERIA JESUITA BATI

Biotzeko lagun zarra: Jondaneko batian egin gudan izkeltzadiak oso tristetu nindun. Zuen elizan jaietxo euskerazko meza alde batera uzteko agertu zidazun asmoz, alegia.

Meza orratan askotan predikatzen dezu, baño, dirudienez, gazte batzuk meza oietako baten ondoren zuregana agertu eta etzeudak konforme adierazi zizuten. Gaur-eguneko arazoak ez dituzela erabiltzen...

Askotan entzun izan dituz. Zure izkeltzadi guztiz egokiak iruditzi izan zaizkit beti. Ebanjelioz kutsutuak. Gañera, beste dezeder ikusi det zure sermojetan. Zu eta ni edadean alde xamartuak gaude. Aurrera goaz urteetan, baiñan gaurko egunaren arazoekin Ebanjelio Santua egokitzen saiatzen zera. Eta ondo sutsu gañera.

Tristetu egin nintzala esan dituz aurren-aurren. Baiñan asmo bat jao zan nigan baita ere zuri entzutean.

Bijoa aurrera pasa baiño len. sufritzen duten guziki-kin inork pentsatu ezin ala nagola ni penetan.

Eta au esanda gero bijoa baita ere galdera au: Gazteari dana amor ematen baditugu zora goaz?

Gure erriaren kargu duten asko eta asko ez al-dira ari dantzan zenbat gazteak jo nai duguten soziu bakar-rakin?

Berriz ere esango det. Gerra ondoko urte autetan nik ikusten detan oker aundienetako bat, konfusiomis-moda dala. Nor nundiak dabilen inork guztiz dakite. Askoren egiazko asmoak ez nundiak balditza? Ez da errea-smatzen, ez orixe.

—Gazteak ori nai dute eta... Makiñabat aldiz entzuten degu.

KEZKAK

OBANOS-DARRAK ETA ERREEGA

GAZTARAGA'K

Naparroa zarreko erri txiki bat dugu Obanos, zapireun bizilagun izango ditu. Eta zeinen gauza edo, eta bitxia egiten dutelako, gero, dagonilaren azken aldean zortzi egunez! Aurtengo bostgarren urtea. Urtean izan du Z. A.'k lengo iru-lau emertan gertaera orren berri. Aurten ez det irakurri.

«Obanos'eko gertakaria» deritzaion gertitudia. Erriko enparantzak osoa dute antzoki. Eta erri guzia, txantxetan ere, antzerki-gintzan; agertzen diran seiurteantatik ia danak bertakoak bait-dira.

Santiyoko erromesen joan-etoria aipatzen da gertakari ortan. Erromesen artean, Gillen eta Felizia, Akitania'ko senide aundizkiak.

Etxeak aberastasunak utzi eta Jainko-serbitzuan gelditzen da Felizia mojen artean; anaiek, asarreturik, jo eta erail egiten du. Arrebarren odolak ba-du indar Gillen on-biurteko eta bizi guziraiko penitentzi-gintzan jartzeko. Orra gertakariaren muiña.

Gertitudi orten barruan aipatu besterik egiten ez dituzten nortzuek berri eman nai nuke gaur-tzuan.

Naparroa'ren eta bere erreegen kondairan, garrantzi aundia dute Obanos'darrekk. Ez aundia dalako erria bera. Baiñan bai aundi ziralko bertako seme batzuk.

«Infanzones de Obanos» deituraz ezagutuak dira. Etxe-jaunak ziran, ez aundizki eta ez maiztar; aitoseme deritzaio euskeraz.

Aspaldi aletako erreegak jaun eta jabe ziran, noski, alderik gienetan. Eskoletako kondairak-iburuek ala azaltzen dizkigute beintzat.

Ala ziralko? Ezin ukatu, zenbaiteakoa. Jainko-txikitat zeukaten. Gutxienez ere orreka erakusten dute bertako erdal-idaztik.

Euskalerrria'n etzirala ain «jainko-txiki», etzirala ain guziltzua, esan go nuke.

Zergaitik? Erriak ere bazualako bere indarra. Ori narbentzen digute Obanos'darrekk. Erregeari berari ere kontu artzen ziotela, neurririk ipintzen zizkiotela, alegia.

Zerga aunditxoak ezarri nai zikien Naparroa'ko erreegak. Geiegizkoak, Obano'darren irizitan. Eta etziran lo gelditu; ezta azpi-marmarreañ bakarrik ere.

—Ana emen; erregeari esan ziotene:

Zeruko Argia

Zuzendaria:

MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Naparroko-Kantauriko ta Aragoko Kaputxinoko argitaratua (Carlos III, 22, Pamplona)

DONOSTIA'n:

Oquendo, 22. Telf. 26666

ÁRPIDE SARIA:

Urtekoa 190 Pta.

Azterrian 265 »

Aldez artu nai bada, galdetu.

LARRESORO

eta, danok batean zu baino geliago gaituztuko...»

Erdara zarrean eta beren itzez esan-da: «Nos, que cada uno somos tanto que Vos, y todos juntos, más que Vos...» Ba-zuten ausardirik eta kopetean azaliki!

Jakina, asiera orren ondoren etziran uskerietan geldituko. Ezta zurikerietan ibiliko ere, gaur lo dugun bezala.

«Bazan antzeko zenbat Araba'n ere. Elorriaga errixkan zuten bilzar-lekuak, arrizko erre galanta. Auen egitekoa ere, Obanos'darena bezelatsu, erriaren alde jokatzea zan.

Zer, gauza egokiagorik? Erreegak etziran jainko. Agintariak ez dira utzi-ezin. Len, orain eta beti, biur-izteke jauntxo eta erriaren zapaltzaile kaltetarri.

Aginte guztiak berekin daraman arrixkua da. Bai erri-agintek eta bai eliz-agintek. Eta ez dute guzti-guztiek beti jakiten arrixku orri iges egiten.

Orregatik, bai onuragarrri dala maila guztietan, danen izanean eta danen alde, bat bakararik neurririk artzen eskubidea erriaren esku egotea!

Gure erriak, besteak beste, beti izan duala arduratu, or, esango nuke. Eta joera ezetik, baita trabetasuna ere, ortaroko bideak sortzeko eta neurrir-artze ori egiteko.

Txalogarria benetan Obanos'eko errixka. Eta zenbat onelako errixka, langundu ezkerko, bete-betean erantzungo lutekenak?

Errikkak eztezik, gure Donosti politi eta apainak ere ba-du ausardirik, ala bear danean, kopet-ilun agertze-ko.

Danok langundu bagezaiola erriari! Batez ere, jende ikasi guztiek—ain diru-zale diran eta ain salduak dagoen jende ikasi guztiek—langundu ezkerko, zenbat Obanos arri-garri ez lirakan loratuko gure lurrean!

ERAMAN - EKARRI'rako

AGENCIA

Transportes ALE

EUSKAL IRRATSIAOK

ERRI GUZTIRAKO

Ipparguirre, 8 - DONOSTIA